

NAZIOARTEKO SAKONTZE AIPAMENA

Zioen azalpena

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak bultzatu egiten du prestakuntzaren nazioartekotzea, bere ikasleei etorkizunean gizarte globalizatuaren erronkei arrakasta handiagoz aurre egiten lagunduko dien hizkuntza, kultura eta prestakuntzako gaitasunak emateko. Gaitasun horiek balio handia dute erakunde eta erpresentzat langileak hautatzerakoan.

Horregatik, garrantzitsutzat jo da baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten UPV/EHUko tituludunei nazioarteko profila aitortzea tituluaren gehigarri europarrean (TGE).

UPV/EHUK, Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzaren bitartez, Nazioarteko Sakontze Aipamena emango die baldintza zehatz batzuk betetzen dituzten graduako edo masterreko ikasleei.

1. artikulua: Baldintzak

Nazioarteko Sakontze Aipamena lortu ahal izango dute graduako edo masterreko ikasketak bukatutakoan honako baldintza hauek betetzen dituzten ikasleek:

1. Atzerriko hizkuntzetan gutxienez 15 kreditu egin izana UPV/EHUko gradu batean (Practicuma eta Gradu Amaierako Lana kanpo utzita) edo master batean (Practicuma eta Master Amaierako Lana kanpo utzita), edo, kulturarteko gaitasunen arloan gutxienez 3 kreditu egin izana, horretarako UPV/EHUK eskaini eta Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak koordinatuko duen "Intercultural competences" ikastaroa gaindituta.
2. Graduako edo masterreko ikasketak edo praktikak egiteko nazioarteko egonaldi bat egin izana, gutxienez, hiru hilabetekoa, UPV/EHUko trukerako hitzarmen edo programa baten babesean.
3. Atzerriko hizkuntza batean Hizkuntzen Europako Erreferentzia Marko Bateratuko C1 maila edo goragokoa lortu izana. Maila hori egiaztatuko da Espainiako Unibertsitateetako Errektoreen Batzarrak (EUEB) egindako baliokidetzeta tauletan onartutako diploma edo ziurtagirien bidez edo Asociación de Centros de Lenguas en la Enseñanza Superior (ACLES) elkarteak aintzat hartutako hizkuntza ziurtagiriak aitortzeko taulan onartutakoen bidez.

2. artikulua: Prozedura

Aipamena emango zaie baldintza horiek graduako edo masterreko ikasketak amaitu baino lehen betetzen dituzten eta titulu ofiziala eskatu baino lehen egiaztatzen dituzten ikasleei.

Lehenengo eta bigarren puntuetan ezarritako baldintzak betetzen diren ala ez unibertsitateak egiaztatuko du baina hirugarren puntuan adierazitako baldintza (hizkuntza maila) betetzen dela ikasleak berak egiaztatu beharko du.

Salbuespen moduan, aipamena lortu aurretik TGE eskuratu duten 2017/2018 ikasturteko titulatuak beste TGE bat eskatu ahal izango dute –aipamena txertatuta daukana–, baina itzuli egin beharko dute hasieran eskuratutako dokumentua.

3. artikulua: Espedienteen gestioa

Koordinazioaren eta Nazioarteko Harremanen arloko Errektoreordetzak eskaerak aztertuko ditu eta, baldintzak betetzen diren kasuetan, baimendu egingo du Nazioarteko Sakontze Aipamena tituluaren gehigarri europarrean sartzea.

4. Aipamena tituluaren gehigarri europarrean sartzea

UPV/EHUK emango die Nazioarteko Sakontze Aipamena graduan edo masterrean horretarako baldintzak betetzen dituzten ikasleei.

Aipamen hori TGEN agertuko da, egokitzat jotzen den lekuan aintzat hartu dadin.

TGEko 6.1 atalean (Informazio osagarria) txertatuko den testua honako hau izango da: *“Ikasleak Nazioarteko Sakontze Aipamena lortu du. Aipamen hori UPV/EHUK eman dio Gobernu Kontseiluak 2018ko ekainaren 7an hartutako erabakiarekin bat”*.

Xedapen Gehigarria

Aipamen hau eman ahal izango zaie graduko edo masterreko ikasketak 2017/2018 ikasturtean edo hortik aurrerakoetan bukatzen dituzten ikasleei.

Azken Xedapena

Aipamena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.